



## Elkarlanerako hitzarmena lan-tresna gisa

Azkenengo bi ekitaldietan zehar gure lanaren zenbait ezaugarri zehazten aritu gara, hain zuzen ere, zenbait zailtasun sortzen zituztenak: alde batetik, gure egitura mugatuak, horrek eragozten baitigu lurraldearen puntu askotara heltzea, dela ezagunak izateko, dela modu praktikotik jardun ahal izateko ere. Era berean, jasotzen ditugun kreditu eskaera guztiei denbora egokian erantzuna emateko zailtasunak izaten hasiak gara. Hainbatez, guregana lehenengo aldiz datozen bezeroen proposamenak jasotzean, ez daukagu aurretiazko dokumentazio edo jakinbiderik. Horri gehitzen badiogu kasu askotan hurbileko bulegorik ez daukagula, edo gurekin konturik zabalik ez duten bezero edo administrazioentzat lan egiten dutela bezero berri horiek, guzti-guztia oztopatu egiten da.

Krisiak kredituen itzulketarako lehenengo zailtasun kasuak ekarri dizkigu (hala ere, ez dira dozena erdira heltzen, eta horien zenbatekoa Fiarek sustatutako maileguaren %1a baino gutxiagokoa da). Izan ere, ez da hori kasualitatea, gizarte sareetako partaide ez diren erakundeek ari garelako. Hau da, holakoetan etorkizuneko gorabeherak ezagutzeko oztopoak egoten dira eta ez da sarritan erakundetik kanpoko interlo-



kuziorik izaten, horiek nahiago izaten baitute egoera hori zehaztasun osoz ez ezagutaraztea.

Elkarrekin lan egiten duten erakundeen kasuan, aldiz, guztien beharrianak errazago antzematen dira, eta horrek aukera ematen du azterketa-kostu ugari aurrezteko; hainbatez, horietan ere gertatzen da behin eta berriro errepikatzen den eragiketa mota, maiz administrazio publikoak berak ebatzitzeko diru-laguntza bat aurreratzea dakarrena. Horrek ere ahalbidetzen du erantzuteko denborak murriztea eta jarraipen bateratua egitea; orobat, zailtasun kasuetarako erreferentzia sare bat izatea, guztiak mintzatu ahal izateko, hain juxtu ere, egoera zailak modu baketsuan konpontzea erakartzen duena.

Aurreko guztiagatik, urte honetan zehar lankidetzat hitzarmenak sinatzen saiatu

gara erakunde sare desberdinekin; horretara, modu elkartu batean erakunde gehiagorengana heltzeko xedea erakutsi dugu, euren benetako beharrianek konponbide zehatzak proposatzeko, azterketa-kostuak aurrezteko, erantzuteko azkartasun gehiago lortu eta ordainketa ezaren arriskua gutxitzeko. Horiek direla eta, finantza-baldintza ekonomikoagoak eskaintzen ditugu, eragiketarako guretzat duen kostu txikiagoarekin koherente izateko.

Baina hori ez da merkataritza-hitzarmen soila. Fiare pertsonak batzeko proiektua da, hain zuzen ere, "beste mundu posiblea" eraikitzeko osterantzeko finantza-modu batzuk beharrezkoak direla konbentzitu dauden pertsonak. Eta eraikuntza hori elkarlanean egiten da, amankomuneko ametsak, itxaropenak, borrokak eta zailtasunak dituzten beste pertsona eta erakunde sareekin. Gauzak ez dira berez aldatuko, ezta pertsona edo erakunde baten ahalegin solidarioagatik ere. Ezberdinen artean harremanak eratu behar ditugu, indarrak pilatu, adierazgarriak izateko gizarte honetan eta sinergiak bilatu, finantza arlotik harago. Eta espero dugu lan ildo hau holakoak moldatzeko bidea izatea.

### COOP 57 ([www.coop57.coop](http://www.coop57.coop))


Coop57 da gurekin hitzarmena sinatu duten erakundeetako bat, finantza zerbitzuak eskaintzen dituen kooperatiba historikoa. Katalunian sortu zen eta gaur egun Estatuko beste autonomia erkidego batzuetan ere eskaintzen ditu bere zerbitzuak. Coop57-k bazkide pribatuengandik edo erakundeengandik jasotzen du sozietate kapitala, eta gizarte-ekonomiaren erakunde eta enpresei ematen die maileguan, horiek aurretiaz bazkide gisa bertan sartzeko apustua egin dutela. Bitartekaritza horretarako bete behar diren baldintzak bazkideek eurek adosten dituzte; izan ere, Coop57ek modu guztiz autokudeatuan egiten du lan. Coop57-k finantza-ketarako benetako alternatiba bat eskaintzen die bere erakunde bazkideei; hurbiltasun eta bizitasun handiko kudeaketa duen finantzaketa, hain zuzen ere.

Halaber, Coop57-k ausart jokatu du FIARE proiektuaren alde, kide eratzailerak gisa parte hartuz eta proiektuarentzat sozietate

kapitala bilduz.

Urte hauetan zehar izan ditugun harremanen bidez ohartu gara, elkarrekin jokatuz gero, gure gizarte-enpresa eta erakunde beharrian ia guztiei erantzuteko gai garela, batak bete ezin duen hutsunea besteak bete dezakeelako.

Hitzarmen hori estrategikoa da, gizarte-finantzen arloan erreferentziarako erakunde baina Coop57a. Eta elkarren osagarri diren finantzaketa erantzunak eraikitzeko deman kokatzen da. Hainbatez horiek "Sareak" izeneko libretan gauzatu ditugu, ondorengoekin elkarlanean ari garela: *Acció Solidària contra l'Atur*, *Fondo de Solidaridad de Granada*, *REAS-Nafarroaren berme funtsa* edo *GAPekin*.



## REAS Euskadi ([www.economiasolidaria.org/reaseuskadi](http://www.economiasolidaria.org/reaseuskadi))

REAS Euskadi (Red de Economía Alternativa y Solidaria—Economía Alternatibo eta Solidarioaren Sarea) 1997an sortu zen, eta gaur egun 47



erakunde osatzen dute. 2009an, euren diru-sarrerak 68.284.717 € izan ziren, 1.282 lanpostu sortu zituzten (%63 emakumeek betetako postuak ziren), eta 2.800 lagun solidario baino gehiago zuten.

REAS Euskadiren misioa ekonomia solidarioa garatzea da, alegia, ekonomia bere alderdi desberdinetan aldarrikatzen duen ikuskera eta praktika bide gisa ulertuta (ekoizpena, finantzaketa, merkataritza eta kontsumoa) —eta ez helburu gisa—, beti ere garapen pertsonal eta erkidegoaren zerbitzura. Modu honetara, egun nagusi den ekonomia ereduaren aurrean egon daitezkeen alternatiben erakuntzarako ekarpen gisa aurkezten da eta gizarte eraldaketarako tresna da, bidezko garapena, iraunkorra eta parte hartzailea sustatzen duena.

REAS Euskadik Euskadiko enpresa eta ekonomia solidarioaren indar eta aitortzarik zabalena lortu nahi du, ekonomia alorrean alternatiba eraldatzaileak sortzen dituzten esperientzia eta tresnen bultzada sustatuz. Ekonomia Solidarioaren esparruan definitzen dira elkarte-, enpresa-, ekonomia-, eta finantza-ekimenak, Ekonomia Solidarioaren Gutunaren sei printzipioekin konprometitua: (1) berdintasuna, (2) enplegua, (3) ingurumena, (4) kooperazioa, (5) irabazi-asmorik ez izatea eta (6) ingurunearekin konpromisoa.

Esparru honetan sartzen dira enpresak, elkarteak eta fundazioak. Horiek gizarte helburua duten jarduera ekonomikoak burutzen dituzte, eta merkataritza bidezkoa, solidarioa edota ekologikoa bultzatzen dute. Orobat, horren arloan sartzen dira enpresa solidario berrien erakunde sustatzaileak, finantza solidarioen ekimenak, banku etikoa, etab. REASen xedea da, hain zuzen ere, Euskal Autonomi Erkidegoan ekimen hauek bultzatu, babestu eta koordinatzea.

## Caritas ([www.caritas.es](http://www.caritas.es))

Eliza katolikoaren karitate eta gizarte-ekintzaren erakunde konfederazio ofiziala da. Bere eratze-xedeen artean ondorengoak nabarmentzen dira: gizakiaren sustapenerako laguntza eta behin-behinekotasun egoeran dauden pertsona guztien duintasunaren osoko garapena. Bere ibilbidean, Caritas-ek konpromiso hirukoitza bereganatzen du gizarte ekintzaren barruan: jendaurrean txirotasun eta ahultasun egoerak jakinarazi, salatu eta horren inguruan gizarte sentsibilizatu, egoeron zergatiak, ondorioak eta eurok aldatzeko bidean parte hartzeko aukerak azalduz.



Caritas-en sarea honakook osatzen dute: 5.000en bat parrokiatoko Caritatek, 68 elizbarrutiko Caritas-ek eta kasuan kasuko autonomietan diren Caritas-ek. Caritas-ek lan garrantzitsua egiten du behin-behinekotasun edota gizarte bazterte egoeran dauden hainbat gizarte taldeei gizarte sustapena eta laguntza emateko. Egoera horien aurrean Caritas-ek duen konpromisoari 65.000 pertsona boluntario baino gehiagok egindako doako lanarekin eusten zaio. Horiek, izan ere, erakundearen giza baliabideen ehuneko 90a dira. Xirotasuna ezabatzeko ekintzak nazioarteko hedadura zabala ere badu, 154 nazioko Caritas-en bitartez. Halakoak 198 herrialde eta lurraldetan daude, Nazioarteko Caritas-en barneratuak. Caritas-ek ontzen duen gizarte zeregina oso zabala da, eta dibertsifikatuta dago. Haren ekintzak ez dira bakarrik zuzentzen sorospen, errehabilitazio edo xirotasun eta gizarte bazterketaren biktimak gizarteratzea. Azpimarratu ere, beren beregi azpimarratzen ditu Caritas-ek egoera horiek sortarazten dituzten bidegabekeriaren arrazoiak. Berabat, salatu egiten ditu horiek. Izatez, gure ekintzek ezberdintasunak eta injustiziaz ukituriko gizarte talde guztiak ere barneratzen dituzte, Espainian zein Hegoaldeko herrialdeetan. Caritas-ek xirotasun eta bazterketaren aurkako borroka zabal hau aurrera eramaten du nazio mailako eta nazioarte mailako azpiegitura zabal bati esker, eta gure giza helburuekin eskuzabaltasunez diru-laguntzak ematen dizkiguten milaka dohaintza-emaile anonimoren ekarpenei esker ere.

Laguntzaileak:



[www.proyectofiare.com](http://www.proyectofiare.com)



## FEVECTA ([www.fevecta.coop](http://www.fevecta.coop))



FEVECTA, Federación Valenciana de Empresas Cooperativas de Trabajo Asociado, Valentziako lan elkartuko kooperatibismo-aren enpresa

erakunde ordezkarria da. 600 kooperatiba baino gehiago biltzen ditu eta bere jarduerak hiru zutabe handitan oinarritzen dira: kooperatiben interesen babesa, kooperatibismoaren sustapena, eta enpresa kideei zerbitzuak eskaintzea.

FEVECTAko kide diren kooperatibek gai asko ekoizten dituzte: kontsumo handira zuzendutako ondasunetatik goi mailako teknologia osagaietara; orobat eraikinak jasotzen dituzte eta konponketak egiten; bestalde, jarraiko arloetan ere ari dira: irakaskuntzan, hurbiltasunezko zerbitzuetan, gizarte- eta kultur animazioan, merkataritzan, ostalaritzan, turismoan, nekazaritza-garapenean, arte grafikoetan, diseinuan, aholkularitzan, dokumentazioaren kudeaketan eta informazioaren teknologia berriak gizarteratzean.

2010eko abenduaren 1ean FEVECTA eta Fiare-Banca Popolare Ética-k elkarlanerako hitzarmen bat egin zuten, Valentziako kooperatiben eskura baliabide berriak jartzeko aurrezki eta finantzaketa arloetan eta horiekin kooperatiben finantza beharriari aurre egiteko. Fiarek, hitzarmen horren bidez, kooperatibismo arloaren eta gizarte-ekonomiaren alde egindako erronka indartzen du. Dagoeneko badira Fiare-Banca Ética-rekin lanean diharduten kooperatibak, SERCOVAL adibidez, eta oso pozik daude gure baldintzekin eta euren funtsen xedea erabakitzeke duten aukerarekin.

Era berean, valentziar kooperatiba arloaren barnean, Caixa Popular kreditu-kooperatiba valentziarrak Xarxa Valenciana Fiare-rekin dihardu elkarlanean, Fiareren sozietate kapitala erakartzeko zereginetan.

## Gizatea ([www.gizatea.net](http://www.gizatea.net))



Gizatea hitzak ondorengo hitz hauek elkartzen ditu: giza, eta atea. Horrekin gizarteratze-enpresek betetzen duten zeregina adierazi nahi dugu, gizarteratze eta parte hartzerako ate posibletariko bat bezala, gizarteratzeko eta

lan-munduan sartzeko prozesu baten bitartez, bertan pertsona bera protagonistak dela.

Gizarteratze-enpresek gizartearen desabantaila egoeran edo gizartearen bazterturik dauden taldeei enplegu normalizaturako sarrera errazten diete. Hori egiten da laguntza epealdi baten ostean eta irabazi-asmorik gabeko ondasun edo zerbitzuak ekoizten dituen merkataritza egitura bateko lanpostu baten bidez. Hortxe dago euren balio erantsia, beharrezko giza baliabide eta baliabide teknikoekin kalitatezko zerbitzuak eskaintzeaz gain. Enpresa horien ondasun eta zerbitzuak merkaturatzeko sustapena eta merkatu aukerak zabaltzea, merkatu hori publikoa zein pribatua izanik ere, gure gizartearen gizarte erantzukizun irizpideen hedadurari laguntzea da.

Gizatea, Euskal Autonomi Erkidegoko Gizarteratze Enpresen Elkarte, 2007ko azaroan sortu zen, enpresen arteko elkarlana sustatu, sektorearen hobekuntza eta sendotzeari lagundu, eta gizarte eta erakunde publikoen aurrean interlokuzioa bultzatzeko helburuarekin. Gaur egun gizarteratzeko 41 enpresa biltzen ditu eta 2009an bere lantaldeak 606 langile batu zituen, horietatik 379 (%62,3 emakumeak) gizarteratzeko hitzarmena zutenak, eta euren diru-sarrerak 23.594.489€ izan ziren.